

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI MUSIKA

Benito Lertxundi kiroldogian, bihar

Hernanin izango da bihar gauean, Benito Lertxundi abeslaria. Kontzertua eskainiko du oriotararak, kiroldogian, 22:00etan hasita. Sarrerak agortuta daude, aurreko astetik. *Ospakizun gauean*, bere hurrengo diskoko kantak eskainiko ditu bertan. ■

■ HERNANI ZIKUÑAGAKO JAIK

Gaur piztuko da jai giroa, Zikuñagan

Pala txapelketa, aerezumba eta futbolin txapelketa izango dituzte arratsaldean, auzoko festei hasiera emateko. Bihar arratsaldetik igande gauera bitarte, ez du etenik izango jaiak.

IKASTURTE berriari festa giroan ekin ohi diote Zikuñagan, auzoko festekin. Eta hala egingo dute beste behin, gaurtik. Lau egunez izango dira ekin-tzak, igande gauera bitarte.

Hiru zita jarri dituzte, gaur arratsalderako. Hasteko, pala txapelketa jokatu dute beste urte batez, 17:00etatik aurrera. Baina ondoren, nobedade bat prestatu dute: aerezumbarekin jarriko dituzte denak dantzaz, 19:00etan hasita. Eta azkenik, beste *klasiko* bat: futbolin txapelketa jokatu da, 20:00etan.


Haurren moto lasterketak eta 'playback' lehiaketa, bihar

Ekintza gehiago izango dira bihar arratsaldean. 18:00etan aterako dira buruhaundiak, Las Pu'n'tilloren musikak alaituta; eta segidan izango da, urtero ikusmin handia pizten duen

ekintzetako bat: 6 urtetik beherako haurren moto lasterketa. Gero, Apaxi ipuin kontalariaren istorioak entzungo dituzte 19:30etan, eta musikak jarriko du saltsa, gauean: *playback* lehiaketa 22:30etan, eta Zutik Elektrotxaranga gauerdian.

Hortik aurrera, etenik ez du izango festak, asteburuan. Haur eta gaztetxoek jolasak, tortilla lehiaketa, sagardo dastaketa, ginkana, herri kirolak edota danborrada, larunbatean; eta igandean, Ozenki abesbatzak kantatuko du Zikuñagako Amaren omenezko mezan, eta bakailu lehiaketa, paellada herrikoia edota apar festa ere izango dira. Eta bi egunetan, DJ Nemuxekin dantzaldia.

Beraz, oporraldia bukatu izanaren penak alaitu nahi dituenak, aurkituko du zerekin gozatua, Zikuñagan. ■



Apar festaz gozatu ahal izango dute aurten ere, igande arratsaldean.

■ HERNANI UDALA

Gaur hasiko dituzte asfaltatze lanak, Martindegin

Portu eta Osiñaga artean ez ezik, Martindegin ere egingo ditu asfaltatze lanak, datozen egunetan, Hernaniko Udalak. Horrela, gaurtik irailaren 13ra, Erroilaburutik eta Telleri Zahar etxera doan bide zatia asfaltatuko dute. Horretarako, bidea erabat itxita egongo da, goizeko 08:00etatik aurrera. Lanak aurrera doazen heinean, bide zatiak irekiko dituzte. ■

■ HERNANI KALERATZEA STOP

Ikasturtea hasteko, bilera gaur

Abuztuko atsedenetik bueltan, gaur egingo du aurreneko bilera irekia, Hernaniko Kaleratzeak Stopek. Arratsaldeko 19:00etan izango da, elkartearen lokalean, Transparkeren (Latsunbe auzoa, 42); eta ostegunero egingo dituzte bilerak. Etxebizitzaren arazoarekin kezkatuta dauden guztiek hartu dezakete parte. Norbaitek bere arazoa planteatu nahiko balu, 18:30etan bertaratu behar du, aurrez telefonoz abixatuta: 943 33 65 83 edo 604 112 740. ■

■ ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Gaztelekuaren irekiera jaia, etzi

Etzi emango dio hasiera, Astigarragako Gaztelekuak, ikasturte berriari. Irekiera jaia ospatuko dute, arratsaldeko 17:00etatik aurrera: Beterriko gazteen *Par-kour* erakustaldia, jan-edana, musika... Euria eginez gero, ikastolako atarian izango da. ■

■ EREÑOTZU-HERNANI ELKARTASUN ASTEBURUA

Larrarte eta Esnal hizlari gaur, Ereñotzun

11/13 sumarioko auziperatuei babesa adierazteko, Elkartasun Asteburua antolatu dute gaurtik. Hitzaldia eskainiko dute auziperatuetako bik, Amaia Esnal eta Aiert Larrartek, 19:00etan ludotekan.

ELKARTASUN Asteburua antolatu dute gaurtik larunbatera bitartean, Ereñotzun eta Hernanin, 11/13 sumarioko auziperatuei babesa adierazteko; eta bereziki, haietako biri: Amaia Esnal urnietarrari eta Aiert Larrarte hernaniarrari.

Hain justu, beraiek hartuko dute hitza, aurreneko bi egunetan. Izan ere, hitzaldia eskainiko dute gaur, arratsaldeko

19:00etan Ereñotzuko ludotekan; eta Hernanin bihar, ordu berean Biterin. Bihar, gainera, manifestazioa izango da Hernanin, 20:00etan Plazan.

Ekintzak goizetik larunbatean, Ereñotzun

Larunbatekoa izango da, dena den, egun nagusia. Ereñotzun ekingo diote, eta goizetik hasita izango dira ekintzak. Horre-

la, jolasak eta kirolak prestatuko dituzte haur eta gaztetxoentzat, 11:00etan hasita, Ereñotzuko futbol zelaian. Kantujira egingo dute gero, auzoan barrena, 12:30etatik aurrera; eta elkartasun argakia ondoren, 13:45etan Ereñotzuko plazan. Herri bazkariarekin borobilduko dute festa, eta bertsoak zein musika ere izango dira.

Baina festa ez da Ereñotzun

bukatuko, Hernanin baizik. Izan ere, Kronoeskalada egingo dute, arratsaldeko 18:30etan hasita, Ibaiondo poligonotik Plazara bitarte. Gaur da izena emateko azkeneko eguna, Garin eta Tripontzi tabernetan, eta elkartasunpedalkadak@gmail.com helbide elektronikoa. 7 euro dira, baina egunean ordaindu beharko dira, 17:30etan Plazan elkartzen direnean. ■

YABEN ENGLISH SCHOOL
HERNANI
ikastegia

CAMBRIDGE UNIVERSITY PRESS
Learning Partner

2019 / 20 IKASTURTEA

MATRIKULA IREKITA
Irailaren 2tik 10era
Ordutegia: 10.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00

YABEN: Andreakale 60 943.331763
YABEN K&S: Perkaingegi 13 943.331763
www.academiayaben.com

Cambridge English Language Assessment
Exam Preparation Centre

KET Nahiane Agirre Narros Arrospide Ane Ayeztaran Manex Gonzalez Saios Gonzalez Lidia Irazu Aritz Liceaga	FIRST Jon Garmendia Yanis Aguado Xabier Garcia Eneko Garmendia Henar Goya Enara Lopez Andoni Sudupe Oier Elzomendi Andrea Ernasti	ADVANCED Maialen Tolosa Ander Leiza Siria Burruza Hegoi Urretabizkaia Aitor Pagola Thais Zambrano Sivia Aguirre Enara Larburu Kepa Sarriudo Mikel Urzulegi
---	---	---

PET
Naia Aguado
Enara Ortega
Martin Amundarain
Irati Lerchundi
Narros Saez
Puru Roi

Eskolak irailaren 10ean hasiko dira

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HERNANI UDALA

CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza

Irailan MATRIKULA ZABALIK 2019/20 ikasturterako

- DBH-ko TITULUA lortu
- Ingelesa
- Heziketa zikloetarako sarbide frogen preparazioa
- Atzerritarrentzako gaztelera

Antziola 62, Hernani 943 33 53 18



GAUR Giro tristeagoa izango dugu gaur. Lainoak izango dira nagusi zeruan, eta euria ere egin dezake, tarteka; bereziki, kostaldean. Bamealdean pixka bat argiagoa izango da giroa. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da, eta frekuentu egingo du. **Min.15° / Max.20°**



BIHAR Lainoan hasiko dugu eguna, bihar ere, eta goizaldean euria egin dezake, oraindik. Baina pixkanaka argitu, eta ostarte zabalak irekiko dira arratsalderako. Hala ere, iparraldeko haizea bizi ibiliko da oraindik, eta giro frekuentu izango dugu. **Min.13° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI BERRIAK ELKARTEA

«Aukera paregabeak» gaur eta bihar, Plaza Berriko azokan

Stock Azoka antolatu du Berriak elkarteak, eta goizez zein arratsalde jarriko dituzte postuak gaur, herriko komertzioek. Bihar, goizez bakarrik.

BESTE hainbatetan egin duen bezala, Stock Azoka antolatu du Berriak merkatari eta ostalarien elkarteak, egun hauetarako. Gaur eta bihar izango da, Plaza Berri; eta bertan, «aukera paregabeak» izango dira, herriko denden postuetan.

Gaurkoan, postuak zabalik egongo dira goizeko 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, goizez bakarrik egongo dira. «Buelta bat eman eta aukerak aprobetxatzera» gonbidatu dituzte herritarrek. ||



Aukera onenaren bila ibiliko dira herritarrek, Stock Azokan.

ASTIGARRAGA-HERNANI AEK EUSKALTEGIA

Matrikulazio kanpaina martxan, Hernani eta Astigarragako AEKn

Zabalik dago izena emateko epea, euskaltegiko ikastaro ezberdinetan. Udalaren dirulaguntza izango dute aurten ere, euskera ikasleek.

IKASTURTE berrian sartu da AEK euskaltegia ere, Astigarragan zein Hernanin. Eta beraz, dagoeneko martxan dute matrikulazio kanpaina.

Herri bakoitzean, hiru bide jarri dituzte aukeran, matrikula egin edota informazioa eskatzeko: Hernanin, AEKren lokalean (Larramendi 11, behe), 607 592 864 telefonoan, edo hernani@aek.eus helbidera idatzita; eta Astigarragan, kultur etxean, 607 610 687 telefonoan, edo astigarraga@aek.eus helbide elektronikoa.

Bietan, goizez egongo dira astelehen eta asteazkenetan,

09:00etatik 13:00etara; eta arratsalde astearte eta ostegunetan, 17:30etatik 19:30etara.

Maila guztietako ikastaroak, eta modalitate ezberdinak

Euskera ikasi edota hobetzeko, aukera ezberdinak izango dira aurten ere. Horrela, maila guztietako ikastaroak daude (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2), eta norberak aukeratu dezake astean zenbat egun egin (bi, hiru edo lau), eta eguneko zein momentutan eman klaseak. Autoikasuntza eta aurrez aurreko eskolak izango dira aukeran, eta baita praktikatzeko egitasmoak

ere: Zilegi Eskolak edota Mintzalagun eta Gurasolagun.

Dirulaguntzak, udalek

Euskera ikasleek, gainera, dirulaguntza jasoko dute aurten ere, udalen aldetik. Astigarragako kasuan, matrikularen %100eko laguntza izango dute oinarritzko errenta jasotzen dutenek, langabetuek, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoek, eta merkatariak; eta matrikularen %75ekoa, gainerakoek.

Hernanin, berriz, %90ekoa izango da, langabetu, ikasle, jubilatu eta pentsiodunentzat; eta %70ekoa, gainerakoentzat. ||

HERNANI ERREMONTEA

Endikaren kontra izango du semifinala etzi, Barrenetxeak

Arratsaldeko 16:00etan jokatu du, Galarretan. Ansa IIren kontra nagusitu zen Saldiasakoa.

FINALERAKO txartela lortzeko lehian ariko da Endika Barrenetxea, Buruz Buruko Txapelketan, final laurdenetako ligaxka hirugarren bukatu ondoren. Eta herenegun jakin zuen, noren kontra jokatu duen semifinala: Endika Urrutia izango du aurrean.

Etzi izango da, larunbatarekin, arratsaldeko 16:00etan hasita Galarretan. Irabazleak, Urrizaren kontra jokatu du finala, irailaren 14an.

Endiak asteartean ziertatu zuen semifinalera pasea, Ansa II urnietarrari 30-22 irabazita. Saldiasako atzelariak

nahikoa zuen 24 tanto egitea, baina horrekin konformatu ez, eta garaipena lortu zuen, aldapa gora jarri zitzaion partiduan. Izan ere, 3-7 aurreratu zen urnietarra, baina hortik aurrera, gehiago izan zen nafarra, eta 9-8 aurreratu ondoren, tartea egiten hasi zen, 24-14 jartzeraino. Horrekin ziurtatu zuen pasea, eta Ansa 26-21 gerturatu zen arren, Endika gailendu zen azkenean.

Barrenetxeak eta Endiak, gaur bertan aukeratu dute materiala, 16:00etan hasita Galarretan jokatu diren hiru partiduen ondoren. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Erresistentzia

Nonbait, bizipen eta esperientzietan oinarrituta sortzen omen du gizakiak jakintza. Bada, akatsetatik zein ondo egindakoetatik ikasi nahi badugu, ezinbestekoa zaigu ikusmira tarte batez bada ere atzera begira jartzea. Mundu berri baten aldeko borrokan gabiltzanok ere urteetan zehar borronte bera erakutsi dutenengandik ikasi behar dugu.

Erresistentzia, edozein mugimendu iraultzailearen muinean dagoen eta egon den kontzeptua da. Nola erresistitu? Noren aurka? Nola egin aurre oldarraldiei? Zein ondorio jasan dituzte erresistentzia praktikan jarri duten militanteek? Larunbat honetan gai horietaz eta gehiagoz solasteko aukera izango dugu Kontrakantxan arratsaldeko 18:30etatik aurre-

ra. Erresistentzia eta honen ondorioak beren azaletan bizi izan dituzten 4 militanteren bizipenez lagunduta hausnarketarako eta eztabaida politikorako aukera bikaina izango dugu.

Egunean bertan ateratako etekin ekonomikoak ERRAKIK (gune autogestionatuen babes sarea) martxan jarri duen erresistentzia kutxa nazionalera bideratu dira. Finean, gure apustua diziplinan eta konpromisoan oinarritutako kultura politikoan sustraitzen diren babes forma eraginkorrak martxan jartzea da. Eta horretaz hausnartzeko beta hartuko dugu larunbatean. Interesa duen edonork zabalik ditu Gaztetxe-ko ateak.

Aingeru Otxotorena Uralde
Hernaniko Gazte
Asanbladako kidea

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

LOGIKALINE enpresak **INFORMATIKO-PROGRAMADORE** lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Oporrak pasata berriro ere zuekin gara!

Menua
3 hasierako
Arraia
Haragia
Postrea, ogia, kafea

27€ (BEZ barne, edaria aparte)
Enkarguz

Koldo eta Pina

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALIZOA, 4 - beheko eskuina

MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte

KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA

Ozenki abesbatzaren ensalok
astearte-osteguna 20:00etan

943 33 12 33 - 637 85 79 62